

ESKUBALOA (BENJAMINAK - ALEBINAK)

JOLASAREN ARAUAK

- =>Jokoan, atezain bat eta pistako 4 jokalarí arituko dirá.
- =>10'ko 4 zati jokatuko dirá, eta aldaketak jokalaria guztiek denbora bera joka dezaten erabiliko dirá. Dena déla, lesio edo istripurik izan ezean, lehen hiru zatietan ezingo da aldaketarik egin. Laugarren zatian nahi beste aldaketa egin anal izango dirá.
- =>Lehenengo hiru zatietan jokalaria bakoitzak gutxienez zati bat, eta gehienez, bi zati joka ditzake.
- =>Zati bakoitzean atezaina aldatu egingo da. Hau da, partida bakoitzean 4 atezain arituko dirá.
- =>Ez in zaio baloiari bi eskuez bote eragin.
- =>Gola edozein jokalarik sartu dezake, baita atezainak ere.
- =>6ehienez 3 pauso eman daitezke baloiari bote eragin gabe.
- =>Aurkako taldea arean sartzeagatik falta seinalatuko da, eta atezainak areako edozein puntutik atera dezake.
- =>Alboko sakea egiterakoan, atera zuzenean jaurtiz gola sar daiteke. Horretarako beti alboko marra zapalduz egin behar da sakea.
- =>Defentsa bat ateko arean sartzean, penaltia seinalatuko da.
- =>Atezainari baloia pasatzea penaltia izango da.

APARTIDAREN EMAITZA - GOLAK ZENBATZEKO ERA;

Laurden bakoitzean sartutako golak apuntatuko dirá. Emaizta honela lortuko da;

Lehenengo 2 laurdenetako golen baturak emaitza emango du. Goñ gehien lortu duenak puntu 1 lortuko du, besteak 0. Hiru eta laugarren laurdenetako golekin beste hainbeste.

Honela, emaitza 1-0 (erdi bat irabazi eta bestea berdindu); 1-1 (erdi bat irabazi eta beste galdu) edo 2-0 (bi erdiak irabazi) izan daiteke.